

E I B A R

Peli Aldazabal zenaren oroimenez IX. euskara lehiaketa

Eguraldi eskasa zen Arraten, malatzaren 23an. «Ohi denez» beharko dugu esan, aspaldiko urtetan ez baitaiku honako egun honek besterik eskaini. Hala ere, euri ufala* eta guzti, ume mordoxka bat bildu zen hamar eta erdietan Arrateko ermitaren atarian; eta umeak ezezik, Eibar Club Deportivo-ko «Kezka» dantzari taldea, andereñoak, gurasoak, senideak, adiskideak eta gainerakoak.

Guztiz, Gipuzkoa nahiz Bizkaiko berrogeita zazpi ume agertu ziren lehiaketa* orduan, alegia*, Ataun, Zaldibi, Legazpi, Lazkano, Elgoibar, Eibar, Ermu eta Bilbokoak. Andoni Idoigaren zuzendaritzaren pean, mahaikoak Libe Sarasua, Karmele Mandiola, Margarita Murgizu, Jose Luis Ugarteburu, Luis Alberto Aranberri, Imanol Larrañaga eta Serafin Basauri zirelarik, irakurketa-, idazketa- eta gramatikari buruzko lehiaketa prestatu zen, umeak bi taldetan banatuta. Hona hemen talde bakoitzeko lehen hamarrak:

Nagusien taldea (11-14 urtekoentzat)

1. Asier Etxeberria. Elgoibartarra. 14 urte. 42,5 puntu. Txapela, Eibarko Udalak* eskainitako irudia, 2.500 pezeta eta saria.
2. Patxi Xabier Bazterrika. Ataundarra. 12 urte. 40,5 puntu. Txapela, 1.500 pezeta eta saria.
3. Maria Dolores Etxeberria. Zaldibiarra. 13 urte. 40 puntu. 1.000 pezeta eta saria.
4. Odile Kruzeta. Eibartarra. 13 urte. 38 puntu. 500 pezeta eta saria.
5. Josune Beldarrain. Bilbotarra. 12 urte. 33 puntu. 500 pezeta eta saria.
6. Begoña Blar. Bilbotarra. 13 urte. 27 puntu. 500 pezeta eta saria.
7. Begoña Bazterretxea. Bilbotarra. 11 urte. 25 puntu. 100 pezeta eta saria.
8. Amala Mujika. Bilbotarra. 12 urte. 24,5 puntu. 100 pezeta eta saria.

9. Nekane Aranburu. Bilbotarra. 13 urte. 24,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
10. Joseba Andoni Beldarrain. Bilbotarra. 11 urte. 24 puntu. 100 pezeta eta saria.

Txikien taldea (7-10 urtekoentzat)

1. Asier Laspiur. Eibartarra. 10 urte. 28,5 puntu. Txapela, 1.000 pezeta eta saria.
2. Agurtzane Garzia. Elgoibartarra. 8 urte. 25 puntu. Txapela, 1.000 pezeta eta saria.
3. Miren L. Urzelai. Legazpiarra. 9 urte. 24,5 puntu. 500 pezeta eta saria.
4. Jon Iriondo. Elgoibartarra. 8 urte. 23,5 puntu. 500 pezeta eta saria.
5. Itziar Beldarrain. Bilbotarra. 9 urte. 22,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
6. Iñaki Arkarazu. Lazkanoarra. 10 urte. 22,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
7. Maria Lurdes Peñalba. Elgoibartarra. 9 urte. 22,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
8. Elisabet Kruzeta. Eibartarra. 8 urte. 21,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
9. Victor Alberdi. Elgoibartarra. 8 urte. 21 puntu. 100 pezeta eta saria.
10. Arantza Gorosabel. Elgoibartarra. 8 urte. 20 puntu. 100 pezeta eta saria.

Batez beste, oso maila oneko lehiaketa izan dugu bederatzigarren hau. Umeak primeran prestatuak etorri zaizkigu. Guztok merezi dute txalo beroena. Beharbada, ikastolaren bat bereiztu behar badugu, ezin dezakegu hemen Elgoibartarrak alpatzeke* laga. Zorion sutsuenak nagusitxoel, umeel eta ezkutuan lanean ari izan diren guraso eta andereñoel.

Datorren urtean ikusiko dugu elkar Arraten. Ez etsi*, gazteok. Kontu izan, datorren urtean bizikleta bana irabaziko dutela lehen ateratzen direnek. Datorren urterarte, bada. Ea eguzkiari ere gutun* bat egiten diozuen, bera ere etor dakigun. Bal ote?

ALBISTARIAK